




**Donostia
San Sebastián**

BIDAIA-KOADERNOA



TAMBIÉN YO, COMO DONOSTIARRA,
QUIERO HACER UN HOMENAJE A DONOSTI,
ESTE HOMENAJE SERÁ EL PEÑE DEL
VIENTO, QUE PEINARÁ EL NOROESTE
ANTES DE ENTRAR EN NUESTRA CIUDAD.
ESTE PROYECTO INCLUYE EL ARRÉGLLO
DEL FINAL DEL PASEO DEL TENIS, LO
HARIAMOS EL ARQUITECTO PEÑA
GANCHEGUI Y YO. NUESTRO Deseo es
EL DE CREAR UN LUGAR DE CONTEM-
PLACION DE LA MAR; ESPERO QUE
SE NOS PERMITA REALIZARLO.

Nik ere, donostiarra naizen aldetik, omenaldi bat egin nahi diot Donostiari. Omenaldi hau Haizearen Orrazia izango da, gure hirira sartu aurretik ipar-mendebaldea orraztuko duena. Proiektu honen barruan sartzen da Tenis pasealekuaren amaiera konpontzea, Peña GancheGUI arkitektoak eta biok egingo genuke. Gure nahia da itsasoa behatzeko leku bat sortzea; gauzatzen utziko digutela espero dut.

Eskultorearen omenezko ekitaldian
Donostian emandako
diskurtsoa. Circa 1968
Eduardo Chillida Artxiboa

Hitzaurrea







LOVE SAN SEBASTIAN... LIVE DONOSTIA

HIRI IREKIA ETA ATSEGINA TURISMO JASANGARRI, ADEITSU ETA KALITATEZKO BATEN ALDE

Donostia hiriko kaleetan paseatzera, naturaguneak ezagutzera, bertako museoetan, tabernetan... sartzera gonbidatzen duen hiria da. Donostiarrok jende abegitsua gara, gure hiria maite dugu eta, modu jasangarri eta adeitsu batean, hiria bisitatzera, goatzera eta bertako txokoetan, kulturean eta tradizioetan barneratzera animatzen zaituztegu.

Gure egunerokotasuna errespetatuko duen turismo baten alde egiten dugu apustu; kale, parke eta hondartzetako garbitasuna mantenduko duen turismoa, eta tokiko merkataritzarekin eta jarduerarekin harmonian biziko dena. Horregatik, hainbat plan eta aukera jasangarri proposatzen ditugu gure bisitarien zat.

Bazenekien...?

-  • Donostiako hirigunearen % 20,3 berdeguneak dira.
-  • 21m² berdegune ditugu biztanleko (OMEk gomendatutako batez besteko balioaren bikoitza).
-  • 25 parke berezi ditugu eta 250.000 zuhaitz baino gehiago.
-  • 80 km bizikleta-bide dituzu erabiltzeko.
-  • Hiriko gune nagusien arteko distantziak, oinez, 15-20 minutu inguruko ratio batean daude azalera lauan.
-  • Donostian nabarmentzekoa da iturriko uraren, bainatzeko uraren eta airearen kalitatea.

Más información:
sansebastianturismoa.eus/jasangarritasuna



DONOSTIA, 5 ZENTZUMENENTZAKO AGERTOKIA

- 1. ekitaldia: HIRIA**
- 2. ekitaldia: ANTZEZLEAK**
- 3. ekitaldia: ARRAZOIAK**
- 4. ekitaldia: AMAIERA**





1. ekitaldia

Hiria

Itsasora irekia eta mendiz inguratua, Donostiak
harridura sortzen du bere paisaiagatik, bere bizitza
kulturalagatik eta bere tradizioengatik.

Donostia 60 km² baino zertxobait gehiagotan kontzentratutako hiria da eta bere paisaiak eta kulturak eskaintzen dituzten aukera guztiez gozaten dute bertako 186.000 biztanleek. Aukera horiek hiriak urte osoan hartzen dituen bisitariek ere aprobetxatzen dituzte, hiri txiki hau bizitasun handiko leku bihurtzen dutenek, bertako azpiegituz eta hiri handien mailako jarduera kulturalaz gozatzean.

Bizitzeko leku bat, baita paisaiak, gastronomiaz, kulturaz, naturaz, lasaitasunaz, joerez... gozatzera etortzeko leku bat ere.

Hiri honek eskaintzen duenaren erakusgarri argiak eta funtsezkoak diren Kontxa eta Zinemaldia baino askoz ere gehiago baita Donostia. Eta, gainera, bertako hondartzak, jatetxeak, bertakoek praktikatzuten dituzten kirolak, bertako jaialdiak, kaleak eta bere izaera ere dira Donostia.

Eskaintza gastronomiko berdingabea duen hiri bat. Ez bakarrik munduan m²-ko Michelin izar gehien dituen bigarren hiria delako, baizik eta askotarikoak eta ugariak direlako ere biltzen dituen tabernak, jatetxeak, elkarteak eta azokak. Hala, abangoardiako jatetxeek kontrastatu egiten dute tradizio luzeko lokal pribatuekin eta betiko pintxo-tabernekin.

Donostiak era guztietako kirolak hartzen ditu, leku aproposa baita bere kokapen geografiko pribilegiatuagatik eta bere baliabide natural ugariengatik. Hiri hobezina da bertako itsasertzeko pasealekueetatik ibiltzeko edo korrika egiteko, ur-kirolak praktikatzeko (surfa, piragua, bela, igeriketa...) edo inguratzen duten mendietan mendietan ibilaldak egiteko, txirrindan ibiltzeko edo eskalatzeko.



Gainera, kirol tradizionalagoak ikusi edo praktika daitezke, besteak beste, euskal pilota edo arrauna.

Hiri hau, arrantza-herri bat zena bere sorreran, merkataritzako hiri bat bilakatu zen, baita gotorleku militar bat ere Napoleonen tropen aurrean. 1813an armada angloportugeseak suntsitu egin zuten hiria, eta urte batzuk geroago, sorraldi berri bat izan zuen zerbitzu- eta turismo-arloko hiri gisa. Errege-familiaren babesean gertatu zen aldaketa hori, Donostia aukeratu baitzuen oporretako egoitza izateko. 1893. urtean Maria Cristina erreginak Miramar jauregia aukeratu zuen udaldiak igarotzeko.

Bertako eraikinen handitasuna eta eklektizismoa garaiko errege-erreginen eta burgesiaren gustuen isla dira, eta denboran zehar moldatzen jakin duen izaera bikaina eta dotorea ematen diote hiriari.


Hiri gutxi dira Donostia bezala urtean zehar hainbeste jaialdiren lekuko. Jazza, literatura, zinema -edozein generokoa-, gastronomia... artearen eta kulturaren adierazpide guztiek dute leku bat hiriko jaialdietan, bere museoetan eta bere agenda kulturalan.

Arrazoi horiengatik guztiengatik eta beste askorengatik ere argi dago ezagutzea merzei duen hiri bat dela Donostia.

Informazio baliagarria:
sanebastianturismoa.eus/info/eu

Mapak eta gidak:
sanebastianturismoa.eus/gidak

Paisaia




Jende gutxi ausartzen da zalantzan jartzen Donostiako paisaia idilikoa: inguratzen duten mendien berdea, Urumeako eremu ez hain sakonen turkesa, bertako badiaren urdin bizia. Kale ordenatuak ditu, hirigune zaharrea izan ezik; izan ere, ezagutzen ez duena erraz gal daiteke bertan ordu luzez eliza eta kalezulo artean, hiria bezain zaharra den portu batean amaitzeko, non olatuak sekulako indarrak hausten diren, batez ere itsas handiko egunetan. Neguan, oldartsu sartzen da itsasoa Pasealeku Berrian; udan, berriz, hego haizeak jotzen duen egunetan, laku baten antzera uzten du Kontxa. Itsasaldi bakoitzean hazten den ibaiak banatzen du hiria, eta estilo desberdinetako zubiek lotzen dituzte bertako auzoak. Gros, Egia, Amara, Erdialdea. Auzoak, bakoitza bere nortasunarekin eta bizitzarekin, erdialdetik urruntzen diren heinean agertzen dira inguruko mendiak eta haranak, hiriarekin bat eginda.

Informazio gehiago:
sansebastianturismoa.eus/irudiak

Arkitektura

Hiriko eraikinek, kaleen antolamenduak, parkeek eta hiribideek... dotorezia berezia ematen diote Donostiari, XIX. mendeko erregetzaren eta burgesiaren turismoaren herentzia baitira. Donostian garrantzi berezia dute arkitektura-estiloek eta eraikuntza bakoitzaren estetikak. Arkitektura Belle Époque estilokoa, arrazionalista edo garaikidea izanda ere, hiriaren diseinuaren xehetasunak asko zaintzen dira mendeak joan ahala, eta eraikuntza berrietan ere mantentzen dira; horri esker, eraikinek jarraitutasun-lerro bati eusten diote.

Eskultura



Eskultore garaikide gailenetako batzuen lanak hiriko gune estrategikoetan daude kokatuta, eta halakoakutsu magiko bat eman diote. Kostaldeko lerroan zehar, Chillidaren Haizearen Orrazia dago, Ondarretako ipar-mendebaldeko muturrean; Pasealeku Berrian, portuaren ondoan, Jorge Oteizaren Eraikuntza Hutsa; eta hondartzetako beste muturrean, Uliaren magalean, Nestor Basterretxearen Bakearen Usoa. Hirian egin den azken eskultura-lana Cristina Iglasiaren obra bat da: Hondalea. Gorazarre egiten die kausa ekologikoen defentsari eta ingurumenaren kontserbaziori, Santa Klara uharteko itsasargiaren etxearen barruan txertatutako euskal geologiaren berreraikuntza moduan.

Informazio gehiago:
sansebastianturismoa.eus/kultura

Auzoak

Igeldo

1912ko funikular zahar bat eta hiriko panoramika onena.



Antigua

Benetako auzo-bizitza Donostiako lehen asentamenduan.



Miramón

Egon daiteke baso basati bat, baina hirian? Bai, hemen.



Aiete

Bertako parke eta jauregietatik paseatzea XIX. mendeko errege-giroan parte sentitzea da.




Alde Zaharra

Kale estu harriztatuak eta historiaz betetako eraikinak, eta taberna eta jatetxe tradizional ugari.



Erdialdea

Dendarik onenak, autoreen artisautzako produktu eksklusiboen nahiz nazioarteko firma handien bila bazabiltza.




Amara

Futbol zaleentzako lekurik aproposena, Donostiako futbolaren tenplua bertako kaleetan dutela: Reale Arena.





Gros

Momentuko auzoa surfaz eta modako tabernez gozatzeko.



Egia

Hiriko bizitza kultural, artistiko eta alternatiboaren epizentroa.



Erriberak

Zoaz Urumea ibaian gora, korrika, paseoan edo bizikletan, zeharkatzen duten sei zubien arkitektura-estilo desberdinak bistan dituzula.

Informazio gehiago:
sanebastianturismoa.eus/auzoak

Ezinbesteko 10ak

Donostia hiri autentiko bat da. Elkarrekin daude bertakoak eta bisitariak, leku berdinez gozatzen. Bertako hondartza, taberna, mendi, bazter bakoitzak historia bat du gordeta eta hainbat eta hainbat modutan gozatzeko aukera eskaintzen dute.

1_Ordubete itsasertzetik paseatzen

Hiria puntatik puntara zeharkatu eta hiriko paisaiatz, hondartzaz eta naturaz goza dezakezu, baita euskal eskultoreen lan onenetako batzuek ere; Chillida, Oteiza eta Basterretxearena, besteak beste.



2_Belle Époque arkitektura

Donostia hiriaren historia kontatzen duen artelan arkitektoniko bat da. Belle Époque eraikuntzak nabarmentzen dira, eraikuntza klasikoekin eta eraikin abangoardistekin batera.



3_Bertako 4 hondartzak

Kontxaren edertasun paregabea eta bere baranda hiriaren ikur dira, baina bertako beste hondartzek ere harrizko zaituzte, surferoenetik (Zurriola) familiarrenera (Ondarreta), ahaztu gabe Santa Klara uharterko hondartza txikia, Cristina Iglesiasen artelana biltzen duena: Hondalea. Hiriko hondartzetan urarekin lotutako era guztietako zaletasunak eta kirolak praktika daitezke.



4_Autentikoena, bertako auzoak

Alde Zaharra da dena gertatzen den auzoa, eta metro gutxitan biltzen dira eliza gotiko bat, basilika barroko bat, museo bihurtutako komentu bat edo pintxo eta elkarte ugari... Baina Donostiako tokiko bizitzan murgildu nahi baduzu, ez galdu aukera Gros, Egia, Antigua, Aiete-Miramon, Amara edo Antigua-Igeldo auzoak ezagutzeko.

5_Natura, parkeak eta lorategiak

Donostia integratu egiten da inguratzen duen naturan. Ategorrieta auzoak Ulia mendiaren magala estaltzen du, Alde Zaharra Urgulleraino iristen da eta Igeldo mendiak izen bereko bere auzoa du. Naturan kokatutako hiria da, eta parkeak eta basoak ditu bere eremu urbanoenean, berdeaz eta uraz gozatzeko, hiritik irten gabe: Cristina Enea parkea, Aieteko parkea...




6_Bidaia bat euskaldunen herrira

Barneratu euskal kulturaren San Telmo Museoan eta ezagutu Europako hizkuntzarik zaharrena den euskararen sekretuak. Guzti hau domingotarren komentu zahar batean babestua dago, eta nazioartean ezaguna den abangoardiako eraikin bat du itsatsia.

7_Porturako bidean

Donostiaren historia bere kaitik sortu eta garatzen den hiri baten historia da. Balea-ehiztarien eta arrantzaleen belaunaldiei babesa eman dien portua. Istorio horiek guztiak Itsas Museoan eta Aquariumean daude, biak portuan bertan.




8_Donostiako begiratokiak

Donostia besarkatzen duten hiru mendietako edozeinetara -Igeldo, Urgull, Ulia- igotzea euskal kostaldearen edertasuna bere bikaintasunik handienean mirestea da.

9_Pintxoak

Donostiako ohitura gastronomikoen artean zabalduena eta maitatuena pintxoak jatea da. Tradizioaren eta berrikuntzaren adierazgarri da, eta hiriko auzo guztietako jatetxe eta tabernetako barra ikusgarrietan erakusten da.



10_Made in San Sebastian

Donostian hauexek dira oroigarri onenak: txakolin botila bat, Idiazabal gazta puxka, hirian egindako surf taula bat, tokiko artearen erakusgarri bat edo bertako modako boutique bateko jantzi eskusiboa. Donostiarra guzti guztia.

2. ekitaldia

Antzezleak: donostiarrak

Lanbide tradizionalena duenetik hasi eta azken joerak hirira ekartzen ditueneraino, denak daude Donostiako antzezleen artean. Betiko baserritarrek eta sukaldariek hirira iritsi berri diren blogari edo surflariek in harremana dute. Denontzat, aukerarik onenak daude Donostiako kaleetan.



Itziar Ayestaran

Surflaria

“Zurriola hiriguneko hondartza da, oso ondo konektatua dago eta maila guztietarako olatuak ditu.”



Duela 7 urte hasi nintzen surfa egiten. Gogoan dut, gazteagoa nintzenean, hemen neskek ez zutela surfa egiten, ez zaletasunagatik, ez profesionalki, ez zegoen erreferenterik. 40 urterekin probatzea erabaki nuen eta asko gustatu zitzaidan.

Hemen bizi eta lan eginez, Zurriola aurrean, surf hondartza nagusian, edozein unetan goza dezakezu uraz. Txanden arteko atsedenaldian, ohola hartu eta hondartza zeharkatzen dut. Ordu erdi horrek bizitza ematen dit. Erlaxatu egiten zara, deskargatzeko balio dizu eta partekatu egiten duzu gainerako surflariekin. Uretan zauden bitartean, zeu zara zure ohol eta olatuekin, baina kanpoan, hondarrean, komunitate handi bat dago, lotura sendoekin.

Grosen bidaia, ostuatua eta aisia antolatzen duten surf eskola asko eta aisia eskaintzen dituzten eskola asko daude hondartzatik oso gertu. Eta, azkenean, normala da: Zurriola hiriguneko hondartza da, oso ondo konektatua dago eta maila guztietarako olatuak daude.

Tomas Imaz

Baserritarra

“Hiri honek duen gastronomiari esker, bezero gisa oso ezagunak diren hainbat jatetxerekin lan egin dezakegu. Jatetxe horiek gure sasoiko produktuak baliatzen dituzte beren menu gozoak sortzeko.”



Soroa lantzea magikoa da. Sakrifizio handia eta lan gogorra eskatzen du, baina ematen digun sariak ez du amaierarik. Gizakiaren elikadura-katean parte hartzea oso garrantzitsua da, eta, horregatik, maitasun guztia jartzen dugu egiten dugun guztian. Ereiten denetik merkatuetan saltzen den arte.

Baserria eta soroa Zubietan ditugu, Donostiako kanpoaldean dagoen herri batean. Bestalde, gure produktuen bi salmenta-puntu ditugu: San Martin merkatuan eta Groseko merkatuan.

Hiri honek duen gastronomiari esker, bezero gisa oso ezagunak diren hainbat jatetxerekin lan egin dezakegu. Jatetxe horiek gure sasoiko produktuak baliatzen dituzte beren menu gozoak sortzeko.

Borja Argüelles

Sukaldaria

“Zorionez, gastronomia gure kulturaren parte den hiri batean jaioa naiz.”

Zorionez, gastronomia gure kulturaren parte den hiri batean jaioa naiz, familia-jatetxe tradizional batean hasi nintzen, eta han ikasi nituen gastronomiarekiko balioak eta errespetua.

Hiri berean mota guztietako lokalak ditugu, kategoria guztietakoak. Alde batetik, sukaldaritza tradizionala dugu, elkarte gastronomikoetan, sagardotegietan... errotua.

Bestetik, pintxo-barrak eta txikiteoa. Ohiko tabernak, jendea egunero joaten den lekuak. Hau da, neurri batean, egiten dudana: jatetxe txiki batean lan egiten dut, ohiko pintxo-tabernaz bestelako proposamen batekin; surik gabe lan egiten dugu, dena ontzen da, tenperatura baxuan edo gazituta.

Eta, azkenik, abangoardiako sukaldaritza. Biztanle bakoitzeko Michelin izar gehien dituen munduko tokietako bat izanik, nazioarteko gastronomian chef gailenetako batzuk biltzen dituenen: Juan Mari Arzak, Pedro Subijana...



Iosune Andonegui

Arkitektoa

“Donostiar eta, oro har, euskaldun erara gauzak egiteko modua inspiratzailea dela uste dut: gauzak ondo egiteko zaletasuna, dedikazioa, zehaztasuna, perfekzionismoa...”

Material tradizionalak eta lan egiteko modu klasikoak, nahasita, denborarekin eboluzionatzen duten eraikinetan sortzen dira.

Donostiar eta, oro har, euskaldun erara gauzak egiteko modua inspiratzailea dela uste dut: gauzak ondo egiteko zaletasuna, dedikazioa, zehaztasuna, perfekzionismoa... Sukaldaritzan oso presente badago ere, horregatik hain zuzen ezagutzen da gehien kultura hori, diziplina guztietan ikus daiteke, eta, jakina, baita arkitekturan ere.

Euskal Herria kontraste handiko paisaiengatik bereizten da. Mendi handiak, itsaslabar izugarriak... Euskal Herriko arkitekturak sentsibilitate handia du izaera horren aurrean: esku-hartze diskretuak dira, inguruneari protagonismoa kendu nahi ez diotenak. Hala, inguruneaz gozatzeko aukera ematen dute: balkoi bat, begiratoki bat, leihate bat... ikuskizunaz gozatzera bultzatzen zaituzten elementuak.



Aran García-Lekue

Zientzialaria/ikertzailea



“Urte hauetan hiria zientziaren hiri, nazioarteko erreferentzia eta mundu osoko ikertzaileak erakartzeko gune bihurtu dela ikusi dut.”

Fisikaria naiz eta Donostia International Physics Center-en (DIPC) nanozientziako ikerketan ari naiz lanean. Ingalaterran eta Estatu Batuetan lan egin ondoren, duela 10 urte baino gehiago etorri nintzen Donostiara bizitzera, inguruneak eskaintzen zizkidan aukera zientifiko eta ikertzaileak erakarrira. Urte hauetan hiria zientziaren hiri, nazioarteko erreferentzia eta mundu osoko ikertzaileak erakartzeko gune bihurtu dela ikusi dut. Gaur egun, 5.000 pertsona baino gehiago ari

gara Donostian ikerketa-lanean, hainbat herrialdeetatik etorriak, eta urtero ehunka bisitari jasotzen ditugu gure zentroetan.

Hemen egiten dena abangoardiako zientzia da, zalantzarik gabe, ikertzaileak erakartzen dituen, baina gainera, Donostiak laborategi edo bulegotik kanpoko bizitzaz gozatzeko aukera amaigabeak eskaintzen ditu. Edozein lekutara oinez edo bizikletaz joateko aukera ematen duen hiria da, eskaintza gastronomiko eta kulturalaz betea, hondartza bertan dagoela.

Pozik nago Donostia aukeratu dudalako, edo hiriak ni aukeratu nauelako. Lehen mailako ikertzaileekin lan egiten dut, ikuspegi zientifikotik motibagarria den ingurune batean, eta ahal dudan guztietan itsasoan amaitzen dut eguna. Jakina, Donostiak bizitzaren eta zientziaren arteko konbinazio perfektua eskaintzen du.

Fernando Ibarreta

Kirol-klub baten arduraduna

“Kontxan bainatzea oso ohitura donostiarra da. Adineko hainbat talde huts egin gabe joaten dira bainu hartzera: egunero eguerdiko 12etan geratzen dira, egunero bainatzeko (eguraldi txarra eginda ere).”

Kontxan bainatzea oso ohitura donostiarra da. Egunero izaten da jendea goizeko lehen orduan edo arratsaldeko azken orduan, eguzkia sartzen denean, badien bainatzen dena.

Hemen, klubeko instalazioetan, egunero bainulariak ditugu, uretan beste kirol batzuk egitera datorren jendeaz gain. Adineko hainbat talde huts egin gabe joaten dira bainu hartzera: egunero eguerdiko 12etan geratzen dira bainatzeko (eguraldi txarra eginda ere); gero duxatu, prestatu eta hamaiketakoa hartzera joaten dira.

Neguan Kontxan bainatzea zoragarria da, inor ez dagoenean eta uraz lasai goza daitekeenean. Gainera, garai honetan jende gutxiago dagoenez, ura ohi baino garbiagoa dago. Baina prestatuta egon behar duzu: hilabete hotzenetan ura 12 gradutan dago gutxi gorabehera, eta kaltegarria izan daiteke; pixkanaka sartu behar duzu uretan.

Egunero bainatzen direnek diote ohitzen zarenean konturatzen zarela 12 edo 13 minututik aurrera gorputzean hotza sentitzeari uzten diozula, eta ateratzen zarenean, nahiz eta hotz handia egin, sentsazioa oso atsegina dela.



3. ekitaldia

Arrazoiak

Donostia bizitzeko arrazoiak urteko egunak
adina dira. Aisiak eta egunerokotasunak
Donostiak eskaintzen duen guztian aurkitzen
dute motibazioa.



Milaka urteko hizkuntza eta historiagatik

Bere jatorria ezezaguna da gaurdaino. Europako hizkuntzarik zaharrena da eta, hizkuntzalarien arabera, genetikoki isolatutako hizkuntza bat da, hau da, ez du beste hizkuntza ezagunekin loturarik. Euskarari buruz ari gara. Euskal Herriko hizkuntza, Pirinioen bi aldeetan hitz egiten dena eta euskal lurraldean frantsesarekin eta gaztelaniarekin batera bizi dena. Gaur egun, 1.000.000 euskal hitzun inguru daude, eta Donostia da euskara gehien hitz egiten den euskal hiriburua; biztanleen % 46k hitz egiten dute eta beste % 20k ulertu egiten dute.

Bestalde, bere berezitasunaz gain, Donostia euskal historiaren eta kulturaren isla ere bada; milaka urteko kultura, bakana eta originala. Hala, bertako tradizioek, jaiek eta ekitaldiek indar handiz jarraitzen dute gaur egungo gizartean, eta kirola, dantza, musika, artea... hartzen dituzte barnean.


Euskal herri-kiroletan, mendeetan zehar Euskal Herriko landa-ingurunean egin diren kirol-modalitate guztiak sartzen dira, besteak beste, aizkolariak, harri-jasotzaileak edo traineru-estropadak, arrantzaren ingurunetik sortuak.

Bertsolaritza diziplina berezietako bat da, eta gaur egun txapelketa handietan, herriko jaietan, sagardotegietan... praktikatzen da.

Informazio gehiago:
sansebastianturismoa.eus/euskara



**KAIKO
AGUR,
ESKERRIK ASKO
POLITA
HONDARTZA
ON EGIN
SAGARDOA**



Bere jarduera kulturalagatik

Zinemak, musikak eta arte eszenikoek Donostia aukeratu dute berritasunak eta joerak erakusteko agertoki gisa. Hiria festaz janzten da, urtean 10 jaialdi baino gehiagorekin. Beste askoren artean, Jazzaldian, nazioarteko musikako izen handiak, Lizza Minelli, Bobby McFerrin edo B.B King, 1996az geroztik hiriko txokorik susmaezinenetan kokatutako eszenatoki ugarietan elkartzen dira, ikusleak hunkiarazteko.

Edo jaialdi nagusia: Donostia Zinemaldia, pertsona gailenak, besteak beste, Alfred Hitchcock, Audrey Hepburn eta Francis Ford Coppola alfonbra gorritik desfilatzen ikusi duena, jaialdi honetako bisitaririk mitikoenetako hiru bakarrik aipatzearren.

Informazio gehiago:
sanebastianaturismoa.eus/kultura



Gastronomia paregabeagatik

Donostia gastronomia gustuko dutenen topagunea da. Urtero, duela hamarkada batzuetatik hona, gastronomian adituak diren pertsonak, era guztietako sukaldariak, sukaldaritzan adituak eta, oro har, ondo jatea maite dutenak Donostiara etortzen dira munduko sukaldari garrantzitsuenetako batzuen menuak dastatzera, baita Europako gastronomiaren historian garrantzitsuenak direnak ere; auzo guztietako taberna ugarietan pintxoak jatera, Michelin izarrak dituzten jatetxeen kontzentrazio handiaz goatzera, esperientzia autentiko batean murgiltzera hiriko eta inguruko sagardotegietan eta txakolindegietan, edo bertako lonjetan eta merkatuetan produktu fresko onenaz hornitzera.

Badira gure eskoletan ikastera etortzen direnak ere, eta horien artean azpimarratzekoa da Basque Culinary Center, gastronomia-hezkuntzako punta-puntako zentroetako bat.

Janari onaren grina, nahiz eta orain inoiz baino biziagoa izan, urrundik dator. Euskal Herrian hain ohikoak diren elkarte gastronomikoak literalki dira elkarte gastronomikoak. Haietan, koadrila osoak biltzen ziren (eta oraindik biltzen dira) sukaldean aritzeko eta lagunartean jateko.

Informazio gehiago:
sanebastianturismoa.eus/gastronomia

Bere kirol-zaletasunagatik

Uretan, lurrean edo airean. Donostia kirola arnasten duen hiria da, mota guztietako diziplinak bildu eta profesional eta afizionatu mailako kirol-proba ugari egiten dituen. Korrikalarientzat: Urumeako ibaiertza edo hondartzetako pasealekuak leku ezin hobeak dira. Hiriak kirol-lehiaketa ugari ditu, donostiarrek gehien maite dutenetako batetik hasita: Behobia-Donostia.

Uretan, Kantauri itsasoan eta Urumea eta Oria ibaietan gozatzeko dutenentzat, imajina ditzakezun aukera guztiak eskaintzen dituzte: surf egitea hondartza mitikoetako batean, Zurriolan; edo piraguan, traineruan edo paddle surf taulan ibiltzea Santa Klara uharteraino; Urumea edo Oria ibaia jaitea kayakean edo SUPean...

Donostiako errepideak eta mendi-ingurunea ezin hobeak dira txirrindulariek kostaldeko errepideetan, mendi hostotsuetan, bide berdeetan edo "Donostia Klasikoa" lasterketako mendate mitikoren batean ibiltzeko.

Ahaztu gabe taldeko edo bikoteko kirolak, hiriko frontoi ugarietan baitute ordezkaritza handiena; izan ere, etengabe egiten dira, modu amateur eta profesionalean, txapelketak eta pilota partidak.

Informazio gehiago:
sansebastianturismoa.eus/kirola

Kongresuetarako agertoki hobezina izateagatik

Donostiak ekitaldiak egiteko agertokirik onenak eskaintzen ditu: komentu batetik hasita (monumentu historiko/artistikoa) errege-jauregi bateraino (Kontxa badiaren gainean eta lorategiez inguratua) edo Kongresu Jauregi bateraino (abangoardiako eraikin bat itsasoaren aurrean).

Donostia munduko 200 hiri zientifiko nagusien artean dago eta 4. postuan dago Espainian, Nature aldizkariaren arabera. Estatuko batez bestekoaren oso gaineratik, Donostian, 1.000 biztanleko 22 ikertzaileak dira. Estatuko batez bestekoa, berriz, 4,6koa da 1.000 biztanleko. Gainera, hirian lehen mailako zentro zientifiko, teknologiko eta medikoak daude, nazioartean posizionamendu ona ematen diotenak, eta talentu, ezagutza eta berrikuntzako ekosistema bat da, kongresu garrantzitsuak erakartzeko eragile bihurtu dena.

1988tik, talde profesional bat Donostia bilera-egoitza gisa sustatzeko lanean ari da, MICE (Meetings, Incentives, Conferences and Exhibitions) sektorean espezializatutako tokiko enpresa-sare batekin batera.

Informazio gehiago:
congress.sansebastianturismoa.eus/eu



Premium izateagatik

Isabel II.a erregina Donostiako lehen turistetako bat izan zen, eta, jakina, hiria modako helmuga gisa mapan jarri zuena. 1845ean, Kontxa hondartza aukeratu zuen udaldiaz gozatzeko erretirorik gogokoena zuelako, eta urte batzuk geroago, Maria Cristina erreginak Miramar jauregian ezarri zuen Gortearen udako egoitza. Donostia dotorezia darion hiri bat da; premium helmuga bat da mende bat baino gehiagoz geroztik, eta gaur egun ere esperientzia paregabea eskaintzen du eskakizun handieneko gure gonbidatuentzat. Donostiako kaleetatik paseatuz, jasangarritasunaren aldeko apustua egin duen helmuga baten lasaitasuna eta benetakotasuna arnas daitezke.

Donostiak zure zentzumen guztiak aktibatzen ditu eta zabala da bere eskaintza: luxuzko hotelak, Donostia Zinemaldian zehar Hollywoodeko pertsonaia historikoak eta izar ugari hartzen dituztenak; jatetxeak, mundu mailan ezagunenak diren sukaldarienak; txakolindegi eksklusiboenak, benetako esperientziak bizitzeko; eta museoak eta artelanak, Eduardo Chillida, Jorge Oteiza, Cristina Iglesias eta Cristobal Balenciagaren mailako bertako artistenak.

Informazio gehiago:
sansebastianturismoa.eus/premium/eu



Bere inguruengatik

Donostia urteko edozein sasoiatan bisitatzeko helmuga da. Gipuzkoako hiriburuaren eskaintza osatzen duen ingurune pribilegiatua du. Gipuzkoa probintzia, Iparraldea, euskal kostaldea edo inguruko hiriak... paisaiez eta planez gozatzeko aukera ematen duten leku zoragarriak dira, negua edo uda izan.

GIPUZKOAKO PROBINTZIA: Gipuzkoa lurralde txikia baina bizia da, benetakoa eta gozatzeko mila txoko dituena. Probintzian aurkituko ditugu parke natural basatiak, ametsezko hondartzak eta olatuen indar soilaz moldatutako sekulako itsaslabarrak elkartzen dituen kostalde bat; edo herri xarmagarriak, beren landa-estiloari eusten dioten herri arrantzale txikiak, XIX. mendean loratu ziren jauretxe handiak eta gaur egun oraindik ere plaza, merkatu eta kaleak bere horretan mantentzen dituztenak.

Euskal kostaldea:

Hondarribia, Orio, Getaria, Zarautz, Zumaia, Deba... Gipuzkoako kostaldeko herriak edertasunagatik eta gastronomiagatik dira ezagunak. Oinez, bizikletan edo garraio publikoan, kostalde honetatik ibilbide bat egitea plan bikain bat da urteko edozein sasoiatan.

Ipar Euskal Herria:

Pirinioen amaiera zeharkatuz, errepideak Hendaiara, Donibane Lohizunera edo Biarritzera eramaten du. Herri horietan surfa egiten da urte osoan zehar, eta sarbidea dira Pirinio frantsesera, hegoalderago dagoen udalerrri batetik: Orreaga, Santiago Bidearen abiaburua.


Bilbo eta Gasteiz:

Donostiaren hiri kideak autoz ordubete pasatxora daude, eta Donostiatik oso bestelako aukerak eskaintzen dituzte Euskal Herriko beste aurpegi batzuk ezagutzeko.

Donostia Turismoak bertako enpresek antolatutako esperientziak eskaintzen ditu, inguruak ezagutzeko.

Informazio gehiago:

ansebastianturismoa.eus/jarduerak



MAISONS DU PORT.
SAINT-JEAN-DE-LUZ

MARIA
SORTZEZ
GARBIAREN
KATEDRALA.
GASTEIZ

GUGGENHEIM
BILBAO
MUSEOA

4. ekitaldia

Amaiera

Donostia: bertako auzoak, jendea, kultura... Bost zentzumenentzako agertokia da. Bertan, errespetuz eta benetako Donostia bizitzeko gogoz bisitatzen gaituzten pertsonek harrera beroa jasoko dute donostiarren aldetik, 365 aukeretako edozeinetan...



Urt

Danborrada ospatzen da, Donostiako jairik garrantzitsuena, eta txotxi denboraldia hasten da.

Ots

Otsaila: Festa eta tradizioen hilabetea. Inauteriak, Inudeak eta Artzainak eta Kaldereroak.

Mar

DFERIA - Arte Eszenikoen Jaialdia- Lilatoia edo Udaberriko Lasterketa emakumeentzat.

Api

Comic-D Jaialdia, Donostiako maratoi ertaina, Giza Eskubideen Zinemaldia edo Nazioarteko Xake Opena.

Mai

Aire zabaleko kirol-denboraldia hasten da, eta Tango Jaialdia egiten da.

Eka

San Juan gaueko suak hiri osoa argizatzen dute, SSko triatloia ospatzen da eta zaldi lasterketen udako denboraldia hasten da.

Uzt

Jazzaldiak agertokiz betetzen du hiria, Donostiako Bela Estropada eta txirrindularitzako lasterketa Klasikoa ospatzen dira.

Abu

Jarduera ugari eta Su Artifizialen Nazioarteko Lehiaketa Donostiako Aste Nagusian, musika klasikoaren Musika Hamabostaldia eta Dantz musika elektronikoaren jaialdia.

Ira

Zinemaldi glamour osoa giro bikaina Kontxako banderako estropadetan eta Euskal Jaietan.

Urr

Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astearekin jarraitzen du zinemak. GDM San Sebastián Moda Festival.

Aza

Gastronomikak sukaldaritzaren arloan diren onenak biltzen ditu Kursaal. Literaktum, Behobia-Donostia, Maratoia, edo murgil zaitez Itsaspeko Zinemaren Nazioarteko Zikloan.

Abe

Gabonak, azokak eta merkatuak, eta egun handietako bat: Santo Tomas.

Informazio gehiago:
sanebastianaturismoa.eus/planak

Informazio baliagarria

MONETA:

Euroa da moneta ofiziala, Europar Batasuneko gainerako lekuetan bezala.

KLIMA:

Klima epela da, temperatura leunekin, hodeitsua sarritan, eta euria urtearen edozein garaitan.

DONOSTIAKO TURISMO BULEGOA:

Boulevard, 8.

HIZKUNTZA OFIZIALAK:

Euskara eta gaztelania.

AIREPORTUAK:

3 aireportu 100km baino gutxiagora (Donostiako, Bilboko eta Biarritzeko aireportuak).

TRENAK:

Tren-geltokia hirigunean.
Konexioak hiru konpainiaren bitartez:
Renfe, Euskotren, SCNF (Hendaia).

BUSAK:

Autobus-geltokia hirigunean, Espainia osoarekin eta Europako zati batekin konexioak.

TAXIAK:

2 konpainiak eskaintzen dituzte zerbitzuak 24 ordutan (Taxidonosti, Vallina Teletaxi).

GARRAIO TURISTIKOA:

SSCard eta Basquecard txartelek erraztu egiten dituzte bidaiak autobusez eta deskontuak eskaintzen dituzte aisian, kulturean, saltokietan, gastronomian...

BIZIKLETA:

80 km baino gehiagoko bizikleta-bideak, oso hiri erosoak bizikletan edo oinez ibiltzeko.

Informazio gehiago:
sanebastianaturismoa.eus/info/eu



Kontaktuen agenda

JAIALDI NAGUSIAK

DOCK OF THE BAY

+34 943 22 45 30

prentsa@dockofthebay.es

DFERIA

+34 943 48 33 59

dferiaprensa@donostia.eus

DONOSTIA FESTIBALA

+34 944 15 45 51

itxaso@lasttour.net

GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA

+34 943 48 14 71

cinederechoshumanos@donostia.eus

JAZZALDIA

+34 943 48 19 00

prensajazz@donostia.eus

MUSIKA HAMABOSTALDIA

+34 943 00 31 70

quincenamusal@donostia.eus

FANTASIAZKO ETA BELDURREZKO ZINEMAREN ASTEA

+34 943 48 11 57

cinema_cinema@donostia.eus

DONOSTIA ZINEMALDIA

+34 943 48 12 12

prensa@sanSebastiánfestival.com (prensa española)
press@sanSebastiánfestival.com (prensa internacional)

PRENTSA-KONTAKTUA DONOSTIA SAN SEBASTIAN TURISMOA

Donostia San Sebastián Turismoa

+34 943 48 11 66 / +34 943 48 11 67

press_turismoa@donostia.eus

TOKIKO BISITAK ETA ESPERIENZIAK

Donostiako eta lurraldeko enpresek eskaintzen dituzten bisitak eta esperientziak hemen eskura daitezke: sanebastianturismoa.eus/jarduerak

DSS SAREETAN



@sanebastiantourism



San Sebastian Tourism / Donostia Turismoa
@sanebastiantourism



@SSTurismo



Visit San Sebastian



Donostia San Sebastian Turismoa



Donostia San Sebastian Turismoa



Donostia San Sebastian Turismoa



sanebastianturismoa.eus/blog



sanebastianturismoa.eus



#sanebastiantourism #kaixodonostia



Sariak eta aitorpenak

HIRIA

Europar bizitzeko 20 lekurik onenak. 4. postuan Donostia.
Forbes (2021)

Kontxa, Europako 4. hondartza onena.
TripAdvisor (2021)

The 25 best cities in the world to visit.
#15 San Sebastian
Travel & Leisure (2021)

Top 10 cities in Europe.
#5 San Sebastián
PressFrom (2021)

The most gorgeous cities in the whole world. #11 San Sebastian
The Asian Today (2021)

Hondartza duten munduko Top 5 luxuzko hiri. 2. postuan Donostia.
Luxury Lifestyle Magazine (2020)

Donostia, Espainiako hiririk onenetakoa bizikletan ibiltzeko.
La Sexta (2020)

Donostia, kostaldeko hiri onena neguan ihesaldi bat egiteko.
Lonely Planet (2020)

Donostia, Europako Saria.
Europako Kontseilua (2019)

Kontxa, Espainiako hondartza onena eta Europako onenetakoen artean.
Trips to Discover (2019)

Kontxa, Europako hondartza onena.
The Guardian (2019)

Berrikuntzaren eta Jasangarritasunaren Saria.
UNWTO (2019)

Donostia, Europako Helmuga Onena.
Expert's Choice, TripExpert (2018)

Donostia Europako 15 helmuga onenen artean.
Time (2018)

KULTURA ETA JAIALDIAK

Donostia Zinemaldia, Europako zinemaldi onenen artean.
The Guardian (2019)

Donostia, Europako Kultura Hiriburua 2016.
Europako Kontseilua

Donostiako Jazzaldia, Europako jazzaldi onenen artean.
Leger Holidays (2016)

GASTRONOMIA

Munduko Helmuga Gastronomiko Onena.
Travel Awaits (2021)

Urteko zaporea. Basque Burnt Cheesecake, Donostia.
New York Times (2021)

2. hiria munduan Michelin izar gehien dituen m²-ko.
19 Izar (2021)

Top 10 Munduko Esperientzia Gastronomikoak. 1. postua: Pintxoak Donostian.
Lonely Planet (2020)

Munduko Helmuga Gastronomiko onena.
Liberty (2018)

Munduko Helmuga Gastronomiko onena.
Caterwings, UK (2017)

ERROMANTIKOA

Donostia, San Balentin ospatzeko munduko helmuga onenetakoa.
Dandelion Chandelier (2020)

Donostia, Europako helmuga erromantikoenetako bat.
European Best Destinations (2018)

Donostia, munduko helmuga erromantikoenetako bat.
Citi.io (2017)

SURFA

Donostia, munduko hiri onenetakoen artean Surfa egiteko.
National Geographic (2018)

FAMILIA

Donostia, Espainiako helmugarik onenetako bat familientzat.
Family Traveller (2019)

Family Friendly Urbano helmuga onena.
HomeAway (2018)





**Donostia
San Sebastián**

sansebastianturismoa.eus